

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

**HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK**

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Olo kontseilariak tokiko Lurreko Telebista Digitalaren (LTD) mugaketak zabaltzeko eskatu dio Ministerioari

*Informazioaren eta Agenda Digitalaren Sozietaterako estatu-idazkariarekin bildu da Madrilen*

Asteartea, 2018.eko azaroak 13

Astelehen honetan, Ekonomia eta Enpresa Ministerioan, Ana Olo Herritar eta Erakunde Harremanetarako kontseilaria Informazioaren eta Agenda Digitalaren Sozietaterako estatu-idazkariarekin, Francisco Polorekin, bildu da, eta tokiko LTDaren mugaketak zabaltzeko eskatu dio.

Kontseilariarekin batera Pello Pellejero, Mikel Sagues eta Iñaki Pinillos egon dira, Komunikazio eta Harreman Instituzionaletako zuzendari nagusia, Informatikaren eta Telekomunikazioen zuzendari nagusia eta Nasertic sozietate publikoko gerentea, hurrenez hurren. Eskaerak Azkoien eta Faltzes Tafallako mugaketa sartzeari egiten dio erreferentzia, zehazki.

Ana Olokok bi mugaketa berri egiteko eskatu du, bata Baztan-Bidasoan eta bestea Sakanan. Bileran, kontseilariak azaldu du atxikitako udalek foru-gobernuari egindako eskaerak direla.

Era berean, Nafarroako Gobernuak irabazi asmorik gabeko irrati-etxeen lizentziak eta FM irrati-lizentziak zabaltzeko beharra adierazi dio Ministerioari. Kontseilariak gogoratu du gobernuak eskuragai zegoen espazio osoa esleitu duela kasik, baina bi emisioetarako eskaerak jasotzen dituztela oraindik.

Amaitzeko, Nafarroako Gobernuak LTDaren anizkoitz autonomikoaren espazioa optimizatze aldera, kanalak zabaltzeko eskatu du.



Bi delegazioak, bileran zehar.